Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALAREN KIROL INSTALAKUNTZEN GARBIKETA ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA PROZEDURA IREKIA, ERREGULAZIO ARMONIZATUA KONTRATU ERRESERBATUA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da garbiketa zerbitzuak ematea Usurbilgo Udalaren kirol instalakuntzetan. Zerbitzua ingurumenerako eta laneko osasunerako errespetagarriak diren metodo, praktika eta produktuez emango da.

2.- ZERBITZUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Kiroldegiko garbiketa egiteko bataz beste urtean 9.210 lanordu estimatzen dira.

Adjudikaziodunak eman behar duen zerbitzua eskatutako lan guztiak egitera iritsiko da, garbiketa egoera orokor eta egokia lortzeko beharrezkoak, eta horren bidez lortuko da agiri honetako espazioak pertsonek behar bezala erabili ahal izatea, eta aldi berean higiene baldintzak bermatzea, ingurumena errespetatuta. Horretarako, langile egokiak izan beharko dituzte, bai kopuruan zein gaitasun profesionalari dagokionean, bai eta egokiak diren erreminta ekipoak, makinak, garbiketa tresnak eta garbigarriak.

Lizitatzaileak eskaintzan zehaztu behar ditu garbiketa teknikak eta sistemak, materialak, produktuak... Garbiketa teknikak eta produktuak egokiak izango dira, eta ez dira erabiliko kaltegarriak direnak instalazioetarako edo ingurumenerako.

Orokortasunez, garbiketako lanetan sartu behar dira gainazal estali guztiak, hau da, taulan zehaztutakoez gain: korridoreak, eskailerak, barandak, eskudelak, biltegiak eta abar.

Zereginak hauek izango dira: altzariak aireztatzea, garbitzea eta hautsa kentzea; mostradoreetako gainaldeak, mahaiak, aulkiak, telefonoak, ekipo informatikoak garbitzea, paperontziak hustea, barrutik eta kanpotik garbitzea, erratza edota mopa pasatzea, xurgagailua erabiltzea eta zoladurak urez garbitzea, sanitarioak garbitzea, leiho arotzeria barrutik eta kanpotik, leihoak barrutik eta kanpotik, kristalak, ispiluak, leiho ertzak, lorratzak garbitzea manparetan, ispiluetan eta kristalezko ateetan... eta orokorrean garbiketa egoera orokorra lortzeko beharrezko direnak.

Bainugelak, komunak, aldagelak eta igerileku eremuak garbitzeaz gain, behar denean, desinfektatu ere egin beharko dira.

Gimnasioko eta tatami berriko hormako kanpoko kristalera handiaren kanpoko eta barruko garbiketa zerbitzutik kanpo geratuko da. Gimnasio eta tatami berriko barruko kristalaren kanpoko garbiketa zerbitzutik kanpo geratuko da, barrukoa aldiz barne.

Usurbilgo Udala

3.- ZERBITZUAREN ORDUTEGIA

Arau orokor gisa, kiroldegia 6:00tik 22:00ra bitarteko ordutegian garbituko da. Harane eta frontoiak erabiltzailerik ez dagoenean garbituko dira.

Edozelan ere, lizitatzaileak aurrekoaren desberdinak diren lan ordutegiak proposatu ahal izango ditu, baita itxita daudenean ere, eta Udalak onartuko beharko du garbiketa ordutegi hori, betiere zentroetan edo lokaletan egiten diren lan eta jardueren artean interferentziarik sortzen ez bada.

4.- LANGILEAK

4.1.- OROKORTASUNAK

Lanak behar bezala egiteko behar diren giza baliabideak izango ditu enpresa adjudikaziodunak, baita lanak egiteko ere langileak falta direnean, adibidez, lan absentismoa, gaixotasuna, istripuak, oporrak edo beste edozein arrazoi dela eta.

Esleipendunak zerbitzuaren arduraduna edo gainbegiratzailea izendatu beharko du. Egin beharreko zerbitzu bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen lan eta horien plantila prebisioen proposamena azalduko ditu eta baita ordezkapenak egiteko dituen baliabideak ere.

Halaber, zaintza eta kontrol lanak egiteko behar diren lanpostuak aurreikusi beharko dira, zerbitzuak behar den moduan egingo direla ziurtatzeko eta zerbitzuei esleitutako zeharkako langileak ziurtatzeko, horien funtzionamendu egokia bermatzeko.

Garbiketan dabiltzan langileak eta materiala ekartzea eta eramatea enpresa adjudikaziodunaren kontura doa.

Zerbitzua langilea lana egiteko moduan dagoenean hasiko da, hau da, lanak hasteko jantzita dagoenean, eta zentro horretako zerbitzu osoa betetzen denean bukatuko da. Ez da zerbitzu ordua izango jantziak aldatzeko denbora edo joan-etorria.

4.2.- LAN JANTZIAK ETA UNIFORMETASUNA

Behar bezala identifikaturik egon behar dute langileek. Jendaurrean garbitze lanak egiten dituzten langileek enpresa esleipendunak eskuratutako lan-jantzia iango dute jantzita. Jantzien kopurua eta kalitatea uneoro arautuko du indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan erabakitakoak.

4.3.- PRESAZKO EGOERAK

Kontratistak larrialditarako telefono bat izango du (365 egun/24 ordu), jasotzen diren abisuei, erreklamazioei eta argibideei erantzuteko, eta behar beste baliabide eduki beharko du zerbitzuak gertatzen diren ustekabeei erantzuteko edo horiekin baliatu ahal izateko.

5.- GARBIKETAKO MATERIALAK

Garbitzeko ekipoak, tresneria, materialak (eskularru eta erratzak barne) eta produktuak, desinfekzioa eta aire-gozagarriak enpresa berak jarri beharko du eta horien kostua sartuta egongo da eskainitako prezioan.

Garbigarriei dagokienez, batez ere erabiliko dituzte ingurumena hobeto errespetatzen duten materialak, eta erabilitako produktu kimiko askotarikoak murriztuko dituzte, eta substantzia batzuk edo osagai batzuk kenduko dituzte garbitzeko zuzenean laguntzen ez duten garbigarrietan, koloranteak, lurrinak, desinfektatzaileak, horretarako ez diren produktuetan, bai eta zuzen dosifikatuko dira garbigarriak, dosifikazio zehatzen bidez, behar den kopurua baino ez erabiltzeko. Plegu administratiboetan zehazten da produktuek bete beharreko ingurmen baldintza.

Garbigarrien ontzi guztiak behar bezala etiketaturik egongo dira.

Lehentasuna emango zaio produktuak edukiera handiko ontzietan erabiltzera, laneko ontziak betetzeko, edo produktu kontzentratuak erabiltzea.

Lizitatzaileak zerrenda bat aurkeztuko du, zentro bakoitzean kontratuan zehar erabiliko dituen garbigarriena, eta adieraziko du horietako bakoitza zertarako den edo zer gainazaletan aplikatuko den, zenbat erabiliko den eta haren segurtasun fitxa. Halaber, zerrenda bat aurkeztuko du, tresnena eta erabiliko dituen gainerako produktuena.

Kontratistaren erantzukizuna izango da erostea eta jartzea material sanikoa zerbitzu eta komun bakoitzean.

Komuneko paperak eta eskuak lehortzeko paperak izango dira birziklatuak %100, eta hobetsiko da guztiz klororik gabeak izatea; gainera, produktua izango da atsegina ukitzean eta behar besteko erresistentziako propietate teknikoak izango ditu.

Hona hemen ezinbestean hornitu beharreko produktuak:

- eskuko paper industriala, kanutoa 7 cm
- WC paper industriala, kanutoa 4,5 cm.
- Zakar poltsa konpostagarriak
- Xaboi likido aparduna.

6.- MAKINERIA

Zarata, kutsadura eta segurtasunari buruz indarrean dagoen araudiak ezarritakoa errespetatu beharko dute tresna guztiek, eta aukeratuko dituzte kontuan izanik zarata maila txikiagoak sortzen dutela eta kontsumo txikiagoak egiten dituztela, ura nahiz energia (elektrikoa edo erregaiak).

Matxuraren bat edo beste edozein gorabehera izanez gero berehala aldatuko da.

Lizitatzaileak zerrenda bat aurkeztuko du, zeinetan agertuko den zer ekipo eta makina erabiliko dituen zentro bakoitzean, eta adieraziko ditu bakoitzaren ezaugarri teknikoak.

Adjudikazioduna arduratuko da mantentzeaz eta, hala badagokio, zentro bakoitzean dauden garbigailuak aldatzeaz.

7.- INSTALAKUNTZAK

Udalak doan emango dizkio garbiketa lanak egiteko behar den ura eta argindarra, eta adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du energia eta baliabide naturalak behar bezala erabiltzeko, zerbitzuak egin bitartean.

Zerbitzuak bukatutakoan, lokal guztietako argiak itzaliko dira.

Udalak ez dio lagatzen ezein instalaziorik adjudikaziodunari, baina eraikin batzuetan lokal txiki batzuk egon daitezke, eta haiek erabili ahal izango ditu adjudikaziodunak, biltegi edo aldagela moduan.

8. ZERBITZUAREN ANTOLAKETA ETA KONTROL SISTEMAK

Zerbitzuak zuzentzea adjudikaziodunari dagokio, eta Udal Zerbitzu Teknikoek, zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol ahalmenak erabiliz, adierazten dizkioten agindu edo norabideetara egokituko da zorrotz.

Zentroetan txandaka lan egin ahal izanez gero, edo zentroetan jende-etorri handia dagoenean, eta Udalak hala iritzita, adjudikazioduna behartuta egongo da garbiketako kontrol koadro batzuk jartzera, zeinetan eguna, ordua, langilea eta egindako lana agertuko diren.

Lizitatzaileak aldizkako sistema batzuk proposatuko ditu, zerbitzua kontrolatzeko, haren betetze maila, zerbitzuaren kalitatea, antzemandako hutsegiteak, eta abar; eta haren maiztasuna eta horiek nola burutu adieraziko du.

Kontratista beharturik dago udaleko zerbitzu teknikoek agintzen dituzten txostenak eta azterlanak prestatzera, betiere kontrata honetako zerbitzuekin lotuta badaude.

Urtero, enpresa adjudikaziodunak eta Udalak aztertuko dute aldaketarik egin daitekeen, komeni bada, eta urteko lan egutegia egingo dute.

9.- LANEKO PARTEAK

Adjudikaziodunak nahitaez hilero eta urtean behin parte batzuk entregatu beharko ditu. Formatua kontratua sinatu ondoren aurkeztuko du. Gutxienez honakoak jasoko ditu: zerbitzuak ematea, betetze maila, lan bereziak, intzidentziak eta matxurak.

10.- HONDAKINAK

Garbiketa kontratuan, garbitze zerbitzuan eta kiroldegiaren erabilpenean sortutako hondakinak kudeatu behar dira.

Garbiketa kontratuaren baitan sorturiko hondakin guztiak (kudeaketa pribatua behar dutenak salbuesita) gaika bildu behar dira eta Usurbilgo atez ateko egutegiaren baitan atera.

Kiroldegian sorturiko hondakin guztiak hondakin gelan egoki sailkatuko dira. Eta hondakinak nahastuta baldin badaude erraz bereizi daitezkeen hondakinak gaika bereziko ditu zerbitzuak.

Egoera hau errepikakorra bada, kiroldegiko arduradunari jakinaraziko zaio eta dagozkion neurriak hartuko dira.

Kiroldegiko edukiontziak ez dira inoiz gainezka egongo eta garbitasun baldintza egokitan egon beharko dute, horretarako beharrezko bilketa maiztasun nahikoa eskeini beharko du garbiketa zerbitzuak. Higiene edo bestelako arrazoiengatik edukiontzi batzuk maizago jasotzea beharra egon daiteke.

Orokorrean, kiroldegiko hondakinen kudeaketa zabor poltsarik gabe egitea hobetsiko da. Erabiliko balira poltsa gardenak izango dira eta 100% birziklagarriak. Bio-hondakinaren bilketarako ezingo dira poltsa konpostagarriak erabili.

Garbiketa zerbitzuak sorturiko hondakinei dagokionez, guztiak gaika bereizi beharko dira eta sorturiko hondakin arriskutsuak kudeatzaile pribatu bidez kudeatu.

Adjudikaziodunak urteko jarraipen txosten bat egin beharko du, non gutxienez ateratako edukiontzi mota, bolumena eta data jaso, intzidentziak, hobekuntzak eta hondakin arriskutsuen kudeatzaile pribatuen ziurtagiriak aurkeztu beharko diren.

11.- GUNEEI LOTUTAKO LANEN ETA MAIZTASUNEN DESKRIBAPENA

Orokorrean, urtero egin beharreko lanak eta maiztasunak hauek dira:

OIARDO KIROLDEGIA

-2 SOLAIRUA

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
		OHIKOA	BEREZIAK
SOTOAK (2)	erratzaz/mangeraz garbitzea	-Hiru hilabetetik behin	
IKASTARO ARETOA	erratzaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero	-Urtean behin sakonago

-1 SOLAIRUARTEA

Usurbilgo Udala

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
ALDAGELAK (2+2)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero, -Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
ALDAGELETAKO PASABIDEA	erratzaz/makinaz garbitzea	-Egunero - Takilak 3 bider astean	
KOMUNAK (2)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero 2 bider (igandean behin) -Alikatatuak sakonago hilabetero	-Urtean behin sakonago (makinaz) garbitzea
SQUASHA	erratzaz/lanbasaz garbitzea	-Astean 2tan	-Urtean bitan sakonago
TATAMI ZAHARRA	erratzaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago
-1. SOLAIRURAINOKO ESKAILERAK (2)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	

0 SOLAIRUA

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
HALL ZAHARRA	erratzaz/makinaz garbitzea	-Egunero 2 aldiz	-Urtean bitan sakonago
BILTEGIA (TABERNA ETA KONTROL ZAHARRA)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Hiruhilabetean behin	
HALL ZAHARREKO KOMUNAK (2) eta ALDAGELA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero 2 bider -Alikatatuak sakonago hilabetero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
GIZONEZKOEN ALDAGELA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta	-Egunero, -Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea

Usurbilgo Udala

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
	desinfektatzea		
EMAKUMEZKOEN ALDAGELA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero, -Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
IGOGAILUA ETA BERE INGURUA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Astean bi bider	
TARTEKO SOLAIRURAINOKO ESKAILERA(+kristalak)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
1.SOLAIRURAINOKO ESKAILERAK (4)	eskuz /erratzaz garbitzea	-Egunero	
GARBIKETA MATERIAL GELA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin	
KANPOKO ZELAI URDINA	eskuz /erratzaz garbitzea	-Egunero	-Urtean hirutan sakonago
KANPOKO ZELAIAREN INGURUA	eskuz /erratzaz garbitzea	-Astean behin	
BOULDERRA	eskuz garbitzea	-Egunero -Hilean behin sakonago	-Urtean bitan sakonago
KANPOKO ZELAIKO PASABIDEA	eskuz /erratzaz garbitzea	-Egunero	
KANPOKO ZELAIKO PASABIDEKO BILTEGIAK (2)	eskuz /erratzaz garbitzea	-Astean behin	
TEKNIKARIAREN BULEGOA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Egunero	
BILERA GELA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Astean bi bider	

Usurbilgo Udala

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
MANTENTZE LANETAKO ARDURADUNAREN BULEGOA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Egunero	
HARRERA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Egunero	
ALDAGELA BERRIKO PASABIDEA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Egunero	
BOTIKINA	makinaz/erratzaz/zapiz garbitzea	-Astean behin -Alikatatuak sakonago hilabetero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
ALDAGELA MISTOA, BERE KOMUNAK, TAKILAK…	makinaz/eskuz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero, -Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
MATERIAL BILTEGI BERRIA (IGERILEKUKOA)	eskuz edo eta erratzaz garbitzea	-Hilean behin	
IGERILEKUKO KORTXERAK	eskuz	-Urtean hirutan	
IGERILEKUKO INGURUA (+SARETAK)	mangeraz/ makinaz garbitzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
IGERILEKUAK	Makinaz garbitu		Urtean behin
SAUNAK	eskuz garbitzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago
HALL BERRIA (mahai eta aulkiak barne)	makinaz/erratzaz garbitzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago
HALL BERRIKO KUMUNA (EGOKITUA)	-Egunero 2 bider (igandean behin) -Alikatatuak sakonago hilabetero	-Urtean behin sakonago (makinaz) garbitzea	-Egunero 2 bider (igandean behin) -Alikatatuak sakonago hilabetero

Usurbilgo Udala

0-1 SOLAIRUARTEA

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
DANTZA GELA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin	-Urtean bitan sakonago
ARETOA (SPINING GELA)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago
DANTZA GELARAKO PASABIDEA (squasheko barandarekin)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
ZERBITZARI GELA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Hilean behin	-Urtean behin sakonago

1. SOLAIRUA

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
BILTEGIAK (2) Usurbil KE eta Udarregi ikastola	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Hamabostero	
BILTEGIETAKO HALLA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
PISTA (HARMAIL AZPIA ERE)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-mopa egunero -Hilean behin makinaz	-Urtean bi aldiz sakonago
HARMAILAK	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Astelehenero	
PASABIDEA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
GIMNASIOA (+makinak)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero 2 bider -Astean behin makinak	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
BI LEIHOEN ARTEKO KORRIDOREA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Astero	
ALDAGELAK (2) ETA	mangeraz /erratzaz	-Egunero,	-Urtean bitan

Usurbilgo Udala

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
KOMUNAK(4)	garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	sakonago (makinaz) garbitzea
TAKILETAKO GELA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
2.SOLAIRURAINOKO ESKAILERAK	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
ARRAPALAKO SARRERA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	

2. SOLAIRUA

OIARDO GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
PASABIDEA (arrapalekin eta bere barandekin)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Astelehenero	
BILTEGIA (Judo KE)	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Hamabostero	
TATAMIA	erratzaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
BI LEIHOEN ARTEKO KORRIDOREA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Astero	
BILTEGIETAKO HALLA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	
ALDAGELAK (2) ETA KOMUNAK(4) (+alikatatua+ispiluak)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero, -Alikatatuak sakonago astero -Isurbideak astero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
TAKILETAKO GELA	erratzaz eta lanbasaz garbitzea	-Egunero	

Usurbilgo Udala

OIARDO KIROLDEGIKO KRISTALAK

Barruko kristalak: sarrerakoak (ateak eta ondoko kristalderia osoa), leihoak barrutik, bulegoen artekoak, botikinekoak, pasilotakoak, igerileku txikiaren ondokoak, areto, kumun eta aldageletako ispiluak, eta orokorrean, erakiniaren barrutik eta zutik (eskilara, elebatzaile zein inongo baliabiderik gabe) garbitu daitezken kristal guztiak, astean behin gutxienez garbitu beharko dira.

Kanpoko kristalak: kanpotik eta zutik (eskilara, elebatzaile zein inongo baliabiderik gabe) garbitu daitezken kristalak astero gutxienez garbituko dira (ireki daitezken leihoak, sarrerako kristalak...), igerilekukoak izan ezik. Igerilekuko barruko kristalak hiru hilean behin garbitu beharko dira, gutxienez.

HARANE FUTBOL ZELAIA

HARANE GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
		OHIKOA	BEREZIA
ZELAI ARTIFIZIALA	eskuz /erratzaz garbitzea	-Astean behin	
ZELAI INGURUA	makinaz /eskuz/erratzaz garbitzea	-Astean 3tan	
ESKAILERAK, ARRAPALAK	makinaz/erratzaz garbitzea	-Astean behin	
GOIKO TERRAZAK, LORATEGIAK	makinaz/erratzaz garbitzea	-Astean behin	
ALDAGELAK (4), BERDEA, URDINA, GORRIA ETA HORIA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Egunero Astelehenetik – ostiralera eta asteburuetan erabileraren arabera - Alikatatuak sakonago hilabetero bitan	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
BULEGOA	makinaz/erratzaz/ zapiz garbitzea	-Hilean behin	
ARBITROEN GELAK (2)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin -Alikatatuak sakonago hilero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
	eskuz garbitzea,	-Hilean behin	-Urtean bitan

BOTIKINA	makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea,	-Alikatatuak hilean behin	sakonago (makinaz) garbitzea
JENDEENTZAKO KOMUNAK	makinaz/eskuz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean 3tan -Alikatatuak sakonago hilero	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
BILTEGIAK (2)	eskuz edo eta erratzaz garbitzea	-Hilean behin	-Urtean bitan sakonago (makinaz) garbitzea
GASEKO INGURUA ETA ATEAK GORDETZEKO ITXITURA	erratzaz garbitzea		-Hilean behin

HERRIKO FRONTOIA

HERRIKO FRONTOIA GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
		OHIKOA	BEREZIA
ALDAGELAK (1)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
KOMUNA (1)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
PASILOA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean behin	-Urtean bitan sakonago (makinaz)

Usurbilgo Udala

AGIÑAKO ARIZTITXO PILOTALEKUA

SOLAIRUA	AGIÑAGAKO FRONTOIA GUNEA	EGITEKOA	MAIZTASUNA	
			OHIKOA	BEREZIAK
0	ALDAGELAK (1)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
0	KOMUNAK (1)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
-1	ALDAGELAK (1)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
-1	KOMUNAK (2)	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
0 ETA -1	PASILOA	makinaz/erratzaz garbitzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
	ESKILARAK	makinaz/erratzaz garbitzea	-Astean bi aldiz	-Urtean bitan sakonago (makinaz)
1	SUKALDEA	mangeraz /erratzaz garbitzea, makinaz/lanbasaz garbitzea eta desinfektatzea	-Hilean behin	
0 ETA -1	PASILOA(aldagelen ondorengoa)	makinaz/erratzaz garbitzea	-Hilean behin	

Usurbilgo Udala

12.- ERAIKIN ETA INSTALAZIOEN DESKRIBAPENA (planoak)